begira sortzen zaigun jayera ta menpetasuna; gizarte-askatasunari ta eskubideai zor diegunas.»

Zer aitortzen degu «Jaungoikoa ta Lege-zarra» esatean? «Jaungoikoa» beste gizakume guztiekin batera azken-eburua daramazkin gogo - indarra da; gure bereziltasunen artean «atariratz» begiratzen diguna. «Lege-zarra» bestiengandik endaz eta edestiz bereziturik, euskotar egiten gaituna; «barnerats» begiratzen diguna.

Bi gauza oiek ikurritz batean iotzerakoan, ordea, «munduko erridi guztientzat» lorez janzitako, askatasun irudia dan, zugatza Iparragirre'ri kantuz goratu-erazi zion urriak, bere abendaren izate bikañari uko egin gabe, ezingo zukean esan: «Euzkadi beste erridi guztien gañetik»; eta alaxe nai izan da ere, «atarirats» begira bearrean izango litzake.

Ez al ditugu ikusi mundu guztiaren kezka ta ezin-egon gogorrak Sarre'ko auteskundea zala-ta? Alde batetik katolikoen eta marxtarren zuzendariak, —euneko 70 katolikoak eta euneko 80 langilleak diran lurraldeun ori— bizikide «oñarriakin, artu-eman ta langintza ta diru-etxeakin, guzti ori «Sociedad de Naciones» dalakoaren ardurapean, Versalles'en egin-pakea naitu-bearraz. Beste aldetik doixtar-aberria, Hitler'ekin edo Hitler'en aldarik gabe, baño Alemani'rekin. Sarre'ren atzekaldean Austri. Austri'ren atzekaldean Dantzig. Eta Hitler'en bejo pasoare naitzean gerratearen itzal bildurgarria, Apokalipsis'ko zaldizkoak gudatresna berriz ornitzen.

Alemani'k Sarre'n egin dun indarketa ikusi, nor gelditu «barnerats» begira gabe? Baño, mundu osoaren estualdia jakin-da, nor egon «atariratz» begira gabe?

Euzko-abertzaleak ez giñan an ez Versalles'ko ilumenean ez ta Donosti'ko «pactoan» ere. Baño, ala ere ezin gentzake ukatu bi gertakizun oiek gure aberriarentzat garrantzi aundia duenik. Bear-bearra zaigu «barnerats» begira gure abendaren bizi-lekua indartzea. Baño baita ere ori bezin bearra zaigu «Ginebra ta Madrid-alderas» begira daukagun su-gurdien sutegi edo kalderak piztu-ta eukitzea; eginen bitean, gertakizunen joan-etorriak, zai gaitzkan egokiera dakarguneaan ez diezaiogun iges egiten utzi ta bai «aprobetxatzen» jakin.

Ez degu Ebangelio'ko neska tuntunak egin zutena egin bear, senarra joan zan gauean, argizaiak itzali-ta zaukatela alegia.

Aberria'k berez dirau ta aldakor-eziña da. Erriketa edo politika, bidea. Abertzaletasuna egi-sorta. Abertzale-politika, eginpidea, egitaraua ta erakundea. Nai dan eiburua lortzeko oiek nola erabilli jakin bear. Batak ez du bestea baztartzen; osatu bai.

Ez dezagun uste izan beñere bakoitzaren iritzi ta asmoak bakarrik daudela abertzaletasunez ornituak; gure lurraldeko erriketa edo politikak, burrukarik aspergarrienean eta guretzat beti kaltegarri dan Madrid'ko aldeurtean ibiltzeko, aukertu ditun gizonakatik, «abertzaletasuna gutxiegikoak» dirala esaferaño.

¡Ez gaitean integroak izan! Gogora ditzagun Masarick eta Benes. Bi oiek, aberriko laguntzarik gabe, abertzaletasunaren berri garbirik zun jenderik gabe, Austria-mendeko gudarozteetarako beren izenak eman zituzten aberkideen aurka, aberriko lurraldea etsai-gudariz josi-ta zegola beren abertzale-politika ta lan yayoari eskerrak bakarrik guztien aurka, Paris'tik, Erroma'tik, Londres'tik eta Wasintong'tik «atariitik» sortu ta sendotu zuten txekar-erkala, txekoen errepublika.

Egokierak, eskatzen dunez, batzuen batera ta bestietan bestera jokatzea, ta daude alkarren aurka. Oyartzun'go ta Gernika'ko ta Txatxarramendi'ko ta Zumarraga'ko estualdi gogor aietaan, «barnerat begiras» zeuden gizon zuurrak armasik gabe gelditu ziranean bertan, izan ziran ,nere beroaldi oiek eskutarazi-bearrez, onez-onean uste'la itzegin zidatenak ere «abertzale-politikaren bideak okertuz, Madrid'en ipiñi-ta zeuden itxaropen eta uste onak galsoritan utziko nituelas.

Gaur, aldi zail eta estu bat oraindik doi-doia igaro dan une ontan, eta egin degunik onena, agian ixil-ixilik egotea izan dan garaian, «atarirat» zuzentzen omen det begirapena «Madrid'en bakarrik josten omen ditut begiak» eta «Euzko-Erria aruntz» omen daramats.

Zertan ote gera azkenean?

Gogora dezagun eta oldoztu beren aberria ezagutu ta maite duten euskotarren gogo-biotzetan dagola Euzkadi; ta bete dezagun «guztiok» bakoitzaren egin-bearra gure gaitasun eta indarren oparia berari egiñaz, eta abertzaletasun esanakorra eskeintzen diogula.

IRUJO'TAR IMANOL

Andere ingoskiak

(AMAITZEKO)

(«El Día'ko bat»-i

Euskera erdakitan irakurleak ere Jaungoikoaren semeak dirala-ta, abentzat zerbait ezagutzen zenduten. Abek gogoan izan bear ditugu, bai, baña Jaungoikoaren emaitz oro bezela. Bere alabu dan gure Euskera, orrengatik iltzen ari gera.

Umetan ikastolan gaitzen nai giñan euskera, gerora idazti ta izparringiak beren betiko erderaz aritze orrekin lenbai-len gure artetik jaurtizen dute. Ta egia esaten dizut: gure ingoskian erdeldunen edo erdeltzalien naia egitekoian... jarrai beza ingoski orrek nai dezuten erakoa.

Euskerazkoa, euskerazkoa nai genduke; ta bertan erderik erabiltzekotan, euskera ez dakitenei berau irakasteko ikasgaiak izan bitez. Besterik ez. Beste guzia, euskeraren kaltez aritzea da. Erdel-idazti oro, naiz eta onena, euskeraren odolaz alikatzen dan izaña gure artean; eta noizbait onezaz oartu ta bide berriak artu bearrez gera.

Ez duala zenbaitek irakurriko? Ez da gezurra tamalez, ez. Baña gauz eder bat esin zazu, garrantzi ta oiturakor diran irakatsi ta irakurgaiak eman zaizkizute, ta besterik izango da. ¿Ez ditugu ba, emakume lan-gaietan ereduik onenak parantzera edo ingalanderaz egiñak? Eta inkun abek jakin ez arren, eredu edertasunak erdera besterik ez dakitenen artean erruz sartzen ditu. Eman zaizkizute ba, eredu onak, nolabaitekoen «klitxeak» baño garestiago ez dira onarenak eta... Berabek bide-egingo dute.

Emakumeari bere bearkun bereziak Jaungoiko-legez irakatsiko dizkion euskel-idazle on bat, eta beretariko lan etxekoi ta eritzu eredu eder batzuk. Orra izparringi danik eta txiroenak ere, Euzkadi'n eman eziñik ez ditun gauzak. Orrezaz gañera, laguntzalleak J. I. izango gera.

Badira gogo-ona dutenak, eta beste asko, ingoskiak berak zaletuko ditu. Berez etorriko dira gai ta idazleak, ingoskiak sortuko ditu ta.

Aberri-aldez lan ederra egingo dezute, eta Kardaberaz Aba doneak esan zuanez, euskerak burua jasotzea Jaungoikoaren nai ba'da. Bere nai au bete dedintzaz lagunduko dezute.

Berak zuen izparringia bereziki onetsi ta ordainduko du. Uste osoa det. Ekin Jaungoikoagatik, eta Aberriagatik

TENE

ARGI DONEA da euskal eleiz liburuik apañena

---

†

Zugasti ta Labayen'dar Jose Maria jauna

(Leaburu'ko erretorea)

1935'eko Ilbeltzaren 18'an iltzan

70 urte zituala

Elizakoak eta Aita Santuaren onespena artu-ta

G. B.

Bere senide Aniceto ta Maria jaun-andreak; ezkon-senide Garagorri'tar Dolores andreak; illobak, lengusuk eta gañerako aideak ildakoaren alde otoi ezazutela daskaizute guzioi.

Illerak Leaburu'ko eleiz nagusian egin ziran, larunbatez, goizeko amar ta erdietan eta gorputza egun berean eortzi Amasa'ko ildegian.

Leaburu, 1935'eko Ilbeltzak 27.

Gazteiz'ko Gotzai jaunak ei ditun barkamenak eman ditu.

EUSKO NEKAZARI BAZKUNA

Beyetarako zezenen arazoa dala-ta

Gipuzkoa'ko E. N. B. Alkartasuna sortu eta bertan batzarrak egiten asi giñaden bezin laster, berako batzarretan Arrasate, Bergara, Soraluze eta alde orretakoak ziraden aldun edo «diisegaduak» ekarri zuten beyetarako ziraden irixko edo zezenen arazoa.

Zioten erak, Bizkaya aldean etzutela orretarako, emen Gipuzkoa'n bezelako araudirik; an aske zutela nai zuten denak nai zuten ainbat eta nai zuten erakoak eukitzea; beragatik emen Gipuzkoa'n ere ori bera eskatu eta iñoaz al bazitekean ori bera iritxi biar zala, orretarako biar ziraden oinkadak emanda. Garrantzi aundiko gauza dala au beti ezagutu du G. E. N. B. Alkartasunak; beragatik, bere batzar geyenetan aztertu du arazo au, jakiñaz edo jakiteko era egiñaz zein lekutan zein araudi dagoen.

Gure eskuetara araudi oyek iritxi ziraden garayarako, Mutrikuko E. N. Bazkunak zuzendu zuen E. N. Bazkun denetara idazti bat esanaz, Bizkai aldean bezela jartzea egoki izango litzakela emen ere, ta Bazkun bakoitzak bere iritzia emateko.

Askok erantzuna emango zuten, Bizkaya'n araudirik etzutelakoan; oker zaudete, Mutriku eta beste iritzi orretan zaudeten denok.

Nekazari anai denok, jakiñian jartzearren emen nator lerro batzuek idaztera onetzaz. Begira: 1932'ko Lotazillaren 19'an garai artako Nekazaritzako «Ministroa» zan Marcelino Domingo'k eman zuen lege bat España guztirako; araudi onek bigarren atalean esaten du «Parada»k izango diradela lau eratakoak:

«Paradas oficiales», au da Gobierno, Diputazio eta Ayuntamentuaren mendekoak.

«Paradas protegidas», Estaduak emandako zezenak idukiko dituzten Alkartasun, Nekazari Alkarte eta zezenzaleak.

«Paradas particulares». Bakoitzak berak jarri lezakenak, bere eta bestien beyentzat.

«Paradas protegidas». Bakoitzak bere abereentzat bakarrik dauzkanak.

Araudi orren 25'garren atalak dio: «Las paradas oficiales de sementales creadas y sostenidas por las Diputaciones y Ayuntamientos, sin perjuicio de lo establecido por este reglamento, se regirán por sus Reglamentos».

Au esaten du lendabiziko erako «paradak» diradenian. Bigarren erakoak diradenian, «Parada» bat nai danean jarri, eskatuko du erriko eta probintziko «Fomento pecuario» deitzen zayon Juntaren bidez, eta berak bere iritzia agertu ondoren.

Irugarren erakoak, au da emengo erazoak diradenian, baimena eskatuko zayo len aitatu degun «Junta Pecuaria» orri, eta laugarren erabaki diradenian ere baimena eskatu degun «Junta pecuaria» orir berari, eta oyek, zertan, beren iritzia emango dute, jarri litekian edo ez. Irugarren edo emengo erakoak diradenian, zezenak ikusi eta ontzat emango dituela Probintziko albaitero nagusiak, dio 46'garren atalak.

Oyek esaten ditu España'ko Gobiernoak, len esan detan garai orretan egiña dagoen Araudian, bere indarra España guzirako berdin zabalduaz.

Urrengo idaztian esango dizutet Bizkaya eta Gipuzkoa'n diraden araudiak nolakoak diraden, eta gero, argituko det nere iritzia zer egin litekian.

EZTANDA

"Basarri"-ren omenez

Gaur, igandea, Zarautz'en jai polit bat izango da. Usurbil'ko Gabon bazkunak Udarregi saria izenez emandako saria eskeñi bear zaiola «Baserri»ri ta gaur ere, bere omenez, bertsolari-guda bat izango da.

Bertsolari-guda goizetik izango da, eguardi aldean edo. Bertsolari auek dira etortzekoak: «Txapel», «Zepai» ta Alkain eta auek beren saioak «Basarri» ta «Nekezabal»-ekin egingo dituzte.

Ordu batean oturuntz edo banketea izango da ta arratsaldean emango zaio «Basarri»ri Udarregi-saria.

Jai polita, jai ikusgarria, jende asko bilduko duan jaia gaur Zarautz'en. Zoaz zu ere irakurle ta bide batez bi gauza egingo dituzu: «Basarri» jatorra txalotu ta bertso ederrak entzun.

ZUGAZTI'tar J. M. jauna ARTZELUS'tar A. jauna

(G. B.)

Bi adiskide min, bi lagun zintzo, bi ongille biozkor eraman dizkigu Jaungoikoak Bere albora: Zugasti'tar Jose Maria jauna, Leaburu'n eta Artzelus'tar Ander jauna, Donosti'n.

Zugasti'tar Jose Maria jauna Leaburu'ko erretorea zan aspaldion eta gizon on, leial eta jatorra zalako, bere eliztar guziak gurasorik maiteena bezin maite zuten. G. B.

* * *

Artzelus'tar Ander jauna, guraso on ta elizkoia, ezagutzen zuten guzien amitasunez inguratua bizi zan. Abertzale ta euskaltzale sutsua zanez bere sendi guzia Jaungoikoaren eta Aberriaren maitasunpean azi zuan. Eta orixe izan guraso batek egin dezaken lanik ederren eta goragarriena. G. B.

Bijoakie bi sendiai gure samin-agur biotzekoa, ta, bereziki «Lumera» idazle lagun zintzoari ta Artzelus'tar Koldobika, gure lankide leialari.

Otoi irakurle ildakoen gogo aldez.

Irakuri astero
A R G I A

Gipuzko-Buru-Batzarra

Gipuzko Buru Batzar onek datorren Otsailla'ren 10'ean, goizeko amarretan, Zumarraga'ko Batzokia'n, urteoroko Erki Batzar Nagusia egiten erabaki du.

a) Igazko kontu garbiketak eta urrengorako artu-emangaiak.
b) Gipuzko Buru Batzarra'ren lana.
c) Erki barrenen arkitzen diran gañerako erakingaien lana.
d) Erki gaietan alderdikide ta eragingaien jokabide azterketa: agiriko egikeratan, gizarte arazoetan eta politika gaietan.
e) Urteoroko asmoak.
f) Agintari auteskundea.
g) Galde erantzunak.

Gaiak erreztutzearren atzar orretan erabili nai diran arazoak urteroko asmoari buruz, Gipuzko Buru Batzar ontara idazkiz bialdu bitez Otsailla-ren 5'erako. Idazkiak Uri Buru Batza'ren Lendakari ta Idazkariak izenpetuak izan bear dira ta Uri Buru Batza'ren eseluz joak.

Uri Buru Batza'k izendatu ditza eke ordezkari ta bere ordezkoak irakiBatzar orretako ta beren izenak jakin arazi zaizkazute Gipuzko Buru Batzar oni zuen eskuetan dauzkatgutien orri bereziak betez.

LENDAKARIA

Bertsolari eguna

takoan berriro Zubimendi abes[...] ta bertso eder batean bera [...] dan doñu berean abestu bear [...] tela dio. Saio onetan entzun [...] ran guk uste degunez berts[...] onenak. «Basarri»ren bertsoak [...] garriak izan ziran. Basarri'k [...] ustez, saio onetan agertu [...] batez ere besteak ez bezela [...] tzia dagoia. Landua, alegia, bu[...] jantzia. Oso egoki sartu zituan [...] rabilten gaian «Jautarkoi» [...] Arana Goiri'tarren iritziak.

IRUGARREN SAI[...]

Irugarren saioan ere doñua [...] Bizenti'k bertsotan emanda[...] zuten eta bertso bera Zubime[...] di'k emandako muturrari jarr[...] bota bear zuten. Saio polita [...] Baño zaila, zailtxoa egian an [...] den batzuentzat.

AZKEN-SA[...]

Laugarren saio ta azkeneko[...] iritxi gera. Saio onetan berts[...] ri bakoitzari langintza bat em[...] zaio. Bat artzai da ta bestea [...] kazari, ta biak ari bear dute [...] karri bertsotan. Bestea nagusi [...] urrengoa morroi e. a. Gairik e[...] kiena ta politena Matxin eta L[...] rralde'ri egokitu zitzaien eta je[...] dea algara gozoan eduki zute[...] Matxin ardo-saltzallea zan [...] Larralde edalea. Aien esakera [...] rrots eta barregarriak! Aien a[...] karri ziri-sartzeak!

Eta ona amaitu bertsolari-[...] da. Baño oraindik ez da erab[...] txapeldun nor dan. An aritu [...] ra maipuruko sei jaunak, lap[...] eskuetan, lan eta lan, eta guz[...] nak ikusi bear txapeldun nor d[...] jakiteko. Arratsaldeko lauetan [...] ko Etxea'ra joango gera ta ant[...] jakingo degu txapeldun nor d[...]

Eusko Etxeratu giñanean ma[...] puruak bere erabakia emana [...] kan, baño jendeak, artean, et[...] kin ezertxore. ¿Txapeldun [...] izango ote? Alako batean Aitz[...] ek irakurri zuan esku-artean [...] raman ingitxoa ta ona zer zio[...]

EPAI-MAIAREN IRITZIA

Epai-maiekoak beren iritzia a[...] tzeko, kontuan eduki bear iz[...] dituzte bertsolarien zorpena, [...] dipena, bertsotarako erreztasun[...] bertsoen neurketa, puntuak [...] oñen berdintasuna.

Baita ere emandako gaiak e[...] billi zituzten edo ez; eta bakoit[...] ri emandako ogibidearen ja[...] egin zan edo ez.

Gauzak zeatz aztertu ondor[...] dieru:

1'gn. Ao batez, iritxi berdiñ[...] koak izanik epai-maiekoak t[...] peldun «Basarri» bertsolaria a[...] keratzen degula.

2'gn. Bigarren sarirako «M[...] txin», irugarrenerako «Zepai», l[...] garrenerako Alkain aukeratu di[...] gula. Oiek puntuz-puntu [...] oiek irabazi dituztela, beste [...] tzuek ia berdintsuan badituz[...] ere.

3'gn. Beste batzuek ere auk[...] ratuak izango zirala, sari uga[...] goak izan balira, ba beste beri[...] lari lalorik ba-zan gudu onetan[...]

Epai-maiekoak: Arizlimuño'[...] Joseba (apaiza), Aitzaga'tar T[...] ribi, Olaizola'tar Joseba, Leku[...] na'tar Imanol (apaiza), Zubime[...] di'tar Joseba, Olano'tar Txor[...]

ERABAKIA JENDEARE[...] GOGOKO

Erabaki ori jakin zanean je[...] de guziak txaloka ekin zion o[...] la epai-maiaren iritzia ont[...] ematen zutela garbiro adierazi[...]

Bertsolariak beren sariak art[...] rakoan bertso banakin eman [...] tuzten eskerrak. Txirrita'rentz[...] saririk izan ez ba-zan ere, Eus[...] Abesbatzako batek «boxt» duro[...] bat eman zion bertsolaririk zar[...] na zalako.

ZORIONIK BEROENA

Ar bitzate bertsolari ta eratz[...] lleak gure txalorik sutsuenak [...] jakin bezate guziak, ARGIA'k b[...] rriro ere pozik eta arduratsu [...] rriko dituala bere orriak, guzi[...] ala bear izan ezkero, onelako [...] eder, pozgarri ta euskal-usaiez [...] teak alik eta geien zabaldu ta a[...] eta geien goratzeko. Txaloak g[...] zini, guziok ederki irabazi ditu[...] te-ta.

ARGIA da zure izperringia. Irakur[...] zazu ta zure adiskideai ere irakurtz[...] ko esaiezu.